



Dokumentu hau komunikabideetako profesionaleri lana errazteko zirriborro orientagarria besterik ez da. Hortaz, nahiz eta hemen idatzita egon, hizlariak esandakoa izango da baliozkoa.

Este documento es solo un borrador orientativo para facilitar el trabajo de los profesionales de los medios de comunicación de manera que sólo será válido lo pronunciado por el orador aunque estuviere aquí escrito.

Bilbao, 26 de noviembre de 2018

COMISIÓN MIXTA DE TRANSFERENCIAS **INTERVENCIÓN JOSU ERKOREKA**

Gaur egun garrantzitsua da.

Zazpi urteren ondoren, Transferentzien Batzorde Misto batatu da, Euskadin.

Lan-bilera adeitsua eta emankorra izan da.

Euskadiri bi trenbide eta AP-1 autobidean transferitzeko geratzen den azken tarte eskualdatzea adostu dugu.

Aurrerantzean, akordio horiek transferentziak zabaltzeko dekretuetan azalduko ditugu.

Aldi berean argitaratuko dira Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

2019ko urtarrilaren 1etik aurrera, Euskadik bere gain hartuko ditu azpiegitura horien kargua eta kudeaketa-lana eta, ondorioz, Kupotik hitzartutako balioespen-akordioak ezartzen dituen 426.000 euroak deskontatuko dira.

Hoy es un día importante.

Tras siete años, la Comisión Mixta de Transferencias se ha reunido y lo ha hecho en Euskadi.

Ha sido una reunión de trabajo cordial y fructífera.

Hemos acordado el traspaso a Euskadi de dos líneas de ferrocarril y el último tramo de la autopista AP-1 que quedaba pendiente de transferir.

A partir de ahora, formularemos estos acuerdos en Decretos de ampliación de transferencias.

Se publicarán, de manera simultánea, en los Boletines oficiales del Estado y Euskadi.

A partir del 1 de enero de 2019 Euskadi se hará cargo y gestionará estas infraestructuras y, consecuentemente, se descontarán del Cupo los 426.000 euros que establece el acuerdo de valoración pactado.

AP-1 AUTOBIDEA

Lehen akordioak Euskadiri AP-1 autobideko azken tarte (Burgos-Armiñón) eskualdatzen dio, hori baitzen Espainiako Gobernuak transferitzeko geratzen zena.

77,2 eta 83,2 kilometro-puntuen artean dauden 6 kilometro dira.

Aurrerantzean, Eusko Jaurlaritzak Kupertik 4,6 milioi euroren % 6,24 deskontatuko du transferentzia horregatik. Hau da, 288.000 euro.

Ministroen Kontseiluak errepide hori "Interes Orokor"reko sarearen zerrendatik deskatalogatu ahal izateko Errege Dekretua onestean transferentzia eraginkorra izatea adostu dugu.

Eusko Jaurlaritza errepide horren titular denean, Arabako Foru Aldundiari transferituko diogu.

El primer acuerdo traspasa a Euskadi el último tramo de la AP-1, Burgos-Armiñón, que quedaba pendiente de transferir por parte del Gobierno español.

Son 6 kilómetros situados entre los puntos kilométricos 77,2 y el 83,2. A partir de ahora, el Gobierno Vasco descontará del Cupo el 6,24% de 4,6 millones de euros por esta transferencia. Esto es, 288.000 euros.

Hemos acordado que la transferencia se haga efectiva una vez que el Consejo de Ministros apruebe el Real Decreto que permita la descatalogación de esta carretera de la red de "Interés General".

Tan pronto como el Gobierno Vasco sea titular de esta carretera, procederemos a transferirla a la Diputación Foral de Araba.

Araudi-aldaketa hori gauzatu bitartean, Espainiako Gobernuak, aste honetan bertan, honako obra hauekin hasiko da:

- Trafikoa arautzea
- AP-1en eta A-1en arteko konexioan adarren edukiera zabaltzea
- Bidesariaren lekua kentzea

Obra horien aurrekontua bi milioi eurokoa da, eta transferentzia egin aurretik egingo dira, eta Espainiako Gobernuak finantzatuko ditu.

Mientras se materializa este cambio normativo, el Gobierno español comenzará, esta misma semana, las obras necesarias para:

- Regular el tráfico;
- Ampliar la capacidad de los ramales en la conexión entre la AP-1 y la A-1; y
- Eliminar la playa de peaje.

Estas obras, presupuestadas en dos millones de euros, se realizarán de forma previa a la entrega de la transferencia y serán financiadas por el Gobierno español.

BI TRENBIDE

Gaur sinatutako akordioek ezartzen dute Espainiako Gobernuak Euskadiri salgaien lineetako ondasunak, instalazioak, eginkizunak eta zerbitzuak transferitzen dizkiola.

- Basurtuko Ospitalea-Ariz
- Irauregi-Lutxana-Barakaldo

13 kilometro dira eta, bertan, bi trenbideak eta dagozkien salgaien terminalak; horiek Eusko Jaurlaritzaren eskuetan izango dira.

Aurrerantzean, Eusko Jaurlaritzak Kupotik 2,2 milioi euroren % 6,24 deskontatuko du transferentzia horregatik. Hau da, 138.000 euro.

Los acuerdos firmados, hoy, establecen que el Gobierno español transfiere a Euskadi los bienes, instalaciones, funciones y servicios de las líneas de mercancías:

- Basurto Hospital-Ariz, e
- Irauregi-Lutxana-Barakaldo

Son 13 kilómetros que comprenden las líneas ferroviarias y sus respectivas terminales de mercancías, que pasarán a manos del Gobierno Vasco.

A partir de ahora, el Gobierno Vasco descontará del Cupo el 6,24% de 2,2 millones de euros por esta transferencia. Esto es, 138.000 euros.

BALORAZIO POLITIKOA

Transferentzien Batzorde Mistoa ez da 2011tik batu.

Zazpi urte egon da komunikaziorik izan gabe eta, zorionez, komunikaziorik gabeko sasoi hori atzean utzi dugu.

Gaur etapa berriari ekin diogu.

Gernikako Estatutua erabat betetzeko lehen urratsa da, sendoa eta irmoa.

Bi gobernuok egiaztatu dugu elkar ulertzeko giro berria aprobetxatu behar dugula, egutegia finkatu eta egiteko dauden 37 transferentziekin amaitzeko plana antolatzeko.

Badakigu zenbat zailtasun dauden.

Hori dela eta, garrantzitsua da gaur adostu dugun erabakia: lanean jarriko gara, berehala, Espainiako Gobernuak aurkeztu beharreko lan-plana eta egutegia adosteko.

Eusko Legebiltzarrak apirilaren 12an eta ekainaren 28an adostutako eta Lehendakariak orduko Rajoy presidenteari eta oraingo Sánchez presidenteari bidalitako proposamenei erantzuten dieten baldintzen arabera egingo dugu.

Amaitzeko, Eusko Jaurlaritzak balorazio positiboa egiten duela adierazi nahi dut, eta elkarrizketaren, negoziazioaren eta adostasunaren aldeko apustua egiten dugula berresten dut.

Gaur, elkarren arteko topaketarako, elkarrizketarako eta elkar ulertzeko espazio positiboa sendotu dugu.

Espero dugu lehen urrats horren bidez alde biok Gernikako Estatutua osorik aplikatzeko, eta, horrela, aitortutako autogobernua betetzeko, eta Estatuak Euskadirekin duen zorra kentzeko dugun helburuari bide ematea.

La Comisión Mixta de Transferencias no se reunía desde el año 2011. Siete años de incomunicación que, afortunadamente, hemos dejado atrás.

Hoy abrimos una nueva etapa.

Damos un primer paso, firme y decidido, hacia el cumplimiento íntegro del Estatuto de Gernika.

Ambos Gobiernos hemos constatado que debemos aprovechar el nuevo clima de entendimiento para confeccionar un calendario y un plan que nos lleve a culminar las 37 transferencias que siguen pendientes.

Somos conscientes de las dificultades.

Por eso es importante la decisión que hemos adoptado hoy: ponernos a trabajar, de inmediato, en acordar el calendario y el plan de trabajo que debe presentar el Gobierno español.

Lo haremos en los términos que den respuesta a las Propositiones acordadas por el Parlamento Vasco los días 12 de abril y 28 de junio, y que el Lehendakari remitió entonces al Presidente Rajoy y, ahora, al Presidente Sánchez.

Termino reiterando la valoración positiva del Gobierno Vasco y ratificando nuestra apuesta por la vía del diálogo, la negociación y el acuerdo.

Hoy hemos fortalecido un espacio de encuentro, diálogo y entendimiento positivo para ambas partes.

Tenemos confianza en que este primer paso facilite el objetivo compartido de aplicar en su integridad el Estatuto de Gernika y saldar la deuda pendiente que el Estado tiene con Euskadi cumpliendo el Autogobierno reconocido.